



1/2018 ZIRKULARRA, URTARRILAREN 8KOA, ZERGA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZARENA, PFEZ-REN ETA EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN KONTURAKO ORDAINKETEI BURUZKOA

Foru-Aldundiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudien (PFEZa)¹ aldaketak onartu dituzte. Hoen bidez, lanaren etekinei aplikatu beharreko atxikipenen portzentajeak aldatzen dira, eta ondorioak izango dituzte 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Ondoren, 2018an aplikatu beharreko PFEZn konturako sarrera eta atxikipen guztien laburpen bat aurkezten da:

1. Lanaren etekinen gaineko atxikipenak

2018rako atxikipen-portzentajeen taula orokorra hurrengoa da:

| Urteko etekina | | Ondorengo kopurua | | | | | | |
|----------------|-----------|-------------------|----|----|----|----|----|---------|
| Honetatik | Honetara | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | Gehiago |
| 0,01 | 11.780,00 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 11.780,01 | 12.250,00 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 12.250,01 | 12.760,00 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 12.760,01 | 13.310,00 | 3 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 13.310,01 | 13.920,00 | 4 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 13.920,01 | 14.580,00 | 5 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 14.580,01 | 15.310,00 | 6 | 4 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 15.310,01 | 16.150,00 | 7 | 5 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 16.150,01 | 17.370,00 | 8 | 6 | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 17.370,01 | 18.790,00 | 9 | 7 | 5 | 2 | 0 | 0 | 0 |
| 18.790,01 | 20.130,00 | 10 | 8 | 7 | 3 | 0 | 0 | 0 |
| 20.130,01 | 21.650,00 | 11 | 10 | 8 | 5 | 1 | 0 | 0 |
| 21.650,01 | 23.150,00 | 12 | 11 | 9 | 6 | 3 | 0 | 0 |
| 23.150,01 | 24.820,00 | 13 | 12 | 10 | 8 | 4 | 1 | 0 |
| 24.820,01 | 26.930,00 | 14 | 13 | 11 | 9 | 6 | 2 | 0 |
| 26.930,01 | 29.470,00 | 15 | 14 | 13 | 10 | 8 | 4 | 0 |
| 29.470,01 | 32.530,00 | 16 | 15 | 14 | 12 | 9 | 6 | 0 |
| 32.530,01 | 36.680,00 | 17 | 16 | 15 | 13 | 11 | 8 | 0 |
| 36.680,01 | 39.740,00 | 18 | 17 | 16 | 15 | 13 | 10 | 3 |
| 39.740,01 | 42.810,00 | 19 | 18 | 17 | 16 | 14 | 12 | 5 |
| 42.810,01 | 46.200,00 | 20 | 19 | 18 | 17 | 15 | 13 | 7 |
| 46.200,01 | 49.750,00 | 21 | 20 | 20 | 18 | 17 | 15 | 9 |
| 49.750,01 | 53.760,00 | 22 | 21 | 21 | 19 | 18 | 16 | 11 |
| 53.760,01 | 57.180,00 | 23 | 22 | 22 | 21 | 19 | 18 | 12 |
| 57.180,01 | 60.970,00 | 24 | 23 | 23 | 22 | 21 | 19 | 14 |

¹ Araba: DF 62/2017, abenduaren 29koa (BOTH 3, 2018/01/08)
Bizkaia: DF 152/2017, abenduaren 19koa (BOB 247, 2017/12/29)
Gipuzkoa: DF 31/2017, abenduaren 27koa (BOG 247, 2017/12/29)

| Urteko etekina | | Ondorengo kopurua | | | | | | |
|----------------|----------------|-------------------|----|----|----|----|----|---------|
| Honetatik | Honetara | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | Gehiago |
| 60.970,01 | 65.310,00 | 25 | 25 | 24 | 23 | 22 | 20 | 16 |
| 65.310,01 | 70.300,00 | 26 | 26 | 25 | 24 | 23 | 22 | 17 |
| 70.300,01 | 75.600,00 | 27 | 27 | 26 | 25 | 24 | 23 | 19 |
| 75.600,01 | 80.320,00 | 28 | 28 | 27 | 26 | 25 | 24 | 20 |
| 80.320,01 | 85.650,00 | 29 | 29 | 28 | 27 | 27 | 25 | 22 |
| 85.650,01 | 91.740,00 | 30 | 30 | 29 | 29 | 28 | 27 | 23 |
| 91.740,01 | 98.770,00 | 31 | 31 | 30 | 30 | 29 | 28 | 25 |
| 98.770,01 | 106.510,00 | 32 | 32 | 31 | 31 | 30 | 29 | 26 |
| 106.510,01 | 115.360,00 | 33 | 33 | 32 | 32 | 31 | 30 | 28 |
| 115.360,01 | 125.390,00 | 34 | 34 | 33 | 33 | 32 | 32 | 29 |
| 125.390,01 | 137.330,00 | 35 | 35 | 34 | 34 | 33 | 33 | 31 |
| 137.330,01 | 150.900,00 | 36 | 36 | 36 | 35 | 35 | 34 | 32 |
| 150.900,01 | 166.790,00 | 37 | 37 | 37 | 36 | 36 | 35 | 33 |
| 166.790,01 | 186.410,00 | 38 | 38 | 38 | 37 | 37 | 36 | 35 |
| 186.410,01 | 206.710,00 | 39 | 39 | 39 | 38 | 38 | 37 | 36 |
| 206.710,01 | Hortik aurrera | 40 | 40 | 40 | 39 | 39 | 39 | 37 |

Langile aktibo desgaituen kasuan, taula orokorra aplikatuz ateratzen den atxikipen-portzentajeari hurrengo eskalan ageri diren puntuak kenduko zaizkio, langilea honako egoera hauetako batean badago:

- Desgaitasun-maila %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa duten langile aktibo desgaituak.
- Desgaitasun-maila %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa izanik, mugitzeko gaitasuna murriztuta duten langile aktibo desgaituak (araudian ezartzen den bezala).
- %65ekoa edo handiagoa den desgaitasun-maila duten langile aktibo desgaituak.

| Urteko etekina | | Desgaitasun maila | |
|----------------|----------------|-------------------|------------------|
| Honetatik | Honetara | a) atala | b) eta c) atalak |
| 0,01 | 23.150,00 | 9 | 12 |
| 23.150,01 | 29.470,00 | 7 | 12 |
| 29.470,01 | 42.810,00 | 6 | 10 |
| 42.810,01 | 49.750,00 | 5 | 10 |
| 49.750,01 | 70.300,00 | 4 | 8 |
| 70.300,01 | 106.510,00 | 3 | 6 |
| 106.510,01 | 166.790,00 | 2 | 5 |
| 166.790,01 | Hortik aurrera | 1 | 3 |

2. Beste atxikipen batzuk

2017an aplikatzen ziren atxikipen-portzentaje berdinak mantentzen dira:

| | |
|---|-----|
| Kapital higigarriaren etekinak | 19% |
| Jarduera ekonomikoen etekinak: | |
| Oro har, | 15% |
| Jarduera hasiera berriko profesionalak (jarduera hasi den zergaldian eta hurrengo bietan) | 7% |
| Ondare-irabaziak | 19% |
| Higiezinen errentamenduak eta azpierreantamenduak | 19% |
| Sariak | 19% |
| Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (EEZR): | |
| Oro har, | 24% |
| Europar Batasuneko egoiliarrak edo Europako Esparru Ekonomikoan | 19% |

Vitoria-Gasteizen, 2018ko urtarrilaren 8an.

Zerga Administrazioako Zuzendaritza